2012/2013ko 2. lauhilekoa. Arkitekturaren Oinarrietako Graduko 2. maila (EHU)

Hirigintza II-ko 2. azalpena (tailer arruntaren amaiera)

Bigarren lauhilekoko bigarren ariketa lehenengoaren jarraipena izango da. Ikasleek Zizurkilgo (Gipuzkoa) «A.I.U.4 Paper-lantegia» izeneko arearako Hiri Antolakuntzarako Plan Berezia gehiago garatuko dute (gogoratu lurzoruaren mailatik gorako irabazizko eraikigarritasuna 0,75 izan behar dela, eta etxebizitza-eraikigarritasuna ezin dela irabazizko eraikigarritasun osoaren % 75 baino handiagoa izan). Ariketa bi zatitan banatuko da:

1. **Taldekako lana**: antolakuntza xehea gehiago zehaztuko da, kontuan hartuta 123/2012 Dekretuko 6. eta 10. artikuluetan zehazten diren hirigintza-estandarrak. Gutxienez, hurrengo informazioa emango da:
   - Antolakuntza orokorraren oina (azken emaitzetako bat erakusten duen plano *ikusgarria* edo *polita*, loteslea ez dena; estalki oinak erakutsiz, eta itzalak adieraziz, baita zuhaitzak ere)
   - Kalifikazio xehearen oina, partzelak, sestrak eta eraikinen solairu-kopuruak ere adieraziz (gogoratu kalifikatzen dena partzela osoa dela)
   - Sekzio orokorrak, sestrak adieraziz (baita aurrekoak ere, leunkiago) eta kalifikazio xeheko kolore berdinak erabiliz
   - Hirigintza-parametroen taula justifikatiboa (alderatuz 123/2012 Dekretuak zer eskatzen duen eta planak zer zehazten duen)
   - Eraikinen ereduak edo tipologiak, iturri-proiektuen datuak aipatuz (lekua, urtea, arkitektoak…)

2. **Banakako lana**: taldeka proposatutako plangintzako partzela baten hirigintza-fitxa garatuko du ikasle bakoitzak (ahal bada, partzelak errepikatu gabe). Bertan, partzelan eraiki daite(z)keen eraikina(k) zehaztuko d(ir)a oinean (sotoko lerrokadurak, behe solairukoak eta solairu tipokoak) zein ebaketan, baita ordenantza idatzien bidez ere. Erabilerak ere zehaztuko dira, baita partzelako hirigintza-parametro nagusiak ere (azalera, eraikigarritasuna, okupazioa, gehienezko etxebizitza-kopurua).

Bi zatiak «Hirigintza II. Hiri izatea» irakasgaiko tailer arruntetako orduetan garatuko dira.

Bi faseetako ematea batera egingo da, Hirigintza II-ko talde bakoitzeko azken eskola praktikoaren amaieran (apirilaren 24an eta 29an), bai digitalki (CDan) bai paperean (din A-1 planoak, din A-4ra tolestuta).

Donostian, 2013ko martxoaren 11n

Irakasleak: Maria Izeta eta Unai Fdz. de Betoño